



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

205eko abenduaren 2ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko abenduaren 2an arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, GOICOECHEA Iñaki

Saioko idazkaria: IDIART Claudine

Deialdiaren data: 2025eko azaroaren 28a

Afixatze data: 2025eko azaroaren 28a

2. ERABAKIA: FUNTZIONARIOEN GRADUZ AITZINATZEAREN KUDEAKETA / PROMOZIO-TASAK (4.1.5 nomenklatura)

Frantziako funtzio publikoaren kode nagusiko L.522-27 artikulua organo erabakitzaileari ematen dio graduz aitzinatzeko promozio-tasen finkatzeko eskumena, Lurraldeko Gizarte Batzordeak iritzia eman eta gero. Gradu bakoitzarentzako tokiko erakundeak sortzen ahalko dituen aitzinamendu graduei dagozkien enpleguen kopurua definitu behar da. Promozio-tasa hori promozioa ukan dezaketen funtzionarioei urtero eta gradu bakoitzean aplikatuko zaie, posible diren gradu aitzinatzeen kopurua zehazteko.

Auzapezak Herri Biltzarrari azaldu dio, enplegatzen diren funtzionario kopurua ikusirik, Auzapezak proposatzen duela %100eko promozio-tasa ezartzea enplegu-esparru bakoitzean. Auzapezak Herri Biltzarrari azaldu dio 2013ko apirilaren 15eko erabakiz jadanik onartu zela %100eko promozio-tasa ezartzea, baina herrian zeuden enplegu-esparru guztiak ez zirela zehaztu.

Auzapezak oroitarazi du graduz aitzinatu ahal izateko funtzionarioek bete behar dituzten aitzinakotasun eta lanbide-ebaluazioa Frantziako araudi batek zehazten dituela.

Promozioa onartuko zaien funtzionarioak Auzapezak ditu hautatuko baldintzak betetzen dituzten artean, tokiko erakundearen indarrean diren Kudeaketa Lerro Zuzentzaileak aplikatuz eta Herri Biltzarrak baimendu dituen aitzinamendu gradu kopuruaren muga. Ondorioz, graduz aitzinatzea ez da funtzionarioek duten eskubide bat.

Promoziora onartuko diren funtzionarioen hautuek, aitzinakotasunaz gain, lanbide-balioa eta lanbide-esperientzia kontuan hartuko dituzte, legeak finkatu bezala. Erabakia lanbide-ebaluazioaren elementuen arabera hartuko da.

ADMINISTRAZIO SAILA:

Lurraldeko administrazio-laguntzaileen enplegu-esparrua:

- 2. klaseko administrazio-laguntzaile nagusia: %100
- 1. klaseko administrazio-laguntzaile nagusia: %100

Lurraldeko erredaktoreen enplegu-esparrua:

- 2. klaseko erredaktore nagusia: %100
- 1. klaseko erredaktore nagusia: %100

Lurralde-arduradunen enplegu-esparrua:

- Arduradun nagusia: %100

TEKNIKA SAILA:

Lurraldeko teknikari-laguntzaileen enplegu-esparrua:

- 2. klaseko teknikari-laguntzaile nagusia: %100
- 1. klaseko teknikari-laguntzaile nagusia: %100

Lurraldeko arduradunen enplegu-esparrua:

- arduradun nagusia: %100

Lurraldeko teknikarien enplegu-esparrua:

- 2. klaseko teknikari nagusia: %100
- 1. klaseko teknikari nagusia: %100

ANIMAZIO SAILA:

Lurraldeko animazio-laguntzaileen enplegu-esparrua:

- 2. klaseko animazio laguntzaile nagusia: %100
- 1. klaseko animazio laguntzaile nagusia: %100

Lurraldeko animatzaileen enplegu-esparrua:

- 2. klaseko animatzaile nagusia: %100
- 1. klaseko animatzaile nagusia: %100

Herri Biltzarrak, Herri arteko Batzorde Teknikoak aldeko iritzia emanik 2007ko uztailaren 7an,

ONARTU DITU Auzapezak proposatu gradu bakoitzeko promozio tasak eta hautatze irizpideak,

INDARGABETU DU 2013ko apirilaren 15eko erabakia, zeinak graduz aitzinatzeko tasak finkatu baitzituen.

Jardunean diren kideak: 15

Presente zirenak: 12

Adierazi diren bozkak: 12

ALDE: 12

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Ortzaizen, 2025eko abenduaren 4an
Auzapeza Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko abenduaren 8an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.